

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Frantses Estatuan hizkuntza legea 2009an?

Iragan maiatzean Christine Albanel frantses ministroak hitzemandako hizkuntza legeak, segur aski, aukera berri bezainbat mehatxu ekarriko du. Segur da lege honek euskarak behar dituen ofizialtasuna eta frantsesarekin parekotasun juridikoa ez dituela aitortuko. Zer egin beraz? Salaketa hutsean gelditu ala eragiten saiatu? Bigarren aukeraren alde egin du Euskal Konfederazioak arrazoi desberdinengatik. Alde batetik premia handia baita —azken inkesta soziolinguistikoak baieztatu duen bezala, salaketa bezain beharrezkoa da nola edo hala bide bat urratzea— hizkuntzaren normalizaziorako baldintza hobegoak sortzeko. Eta baldintza hobego horiek legeak sortuko dituenentz ziur izan gabe ere, beste lurralde hizkuntza komunitateekin batera eragiten saiatzeak balio du.

Alabaina, momentu “historikoa” biziko dugu nolabait. Azken 40 urteetan kolore guztietako frantses talde parlamentarioek hizkuntza lege proiektu bana landu bazuten ere, sekulan ez zuen gobernu batek lege proiektu bat aurkeztu (1982an boterera berriki iritsi ziren sozialistek Destrade izeneko proiektua aurkeztu zuten baina Legebiltzarrean eztabaidatu aitzin lurperatu zuten). Gertakari hau urtetako aldarrikapen eta lanaren emaitza da. Paristik lurralde hizkuntzentzat berri onak salbuespenak direla jakin arren, era-



DANI BLANCO

gitako bataila aurretik galdua dela ezin da baieztatu, eragin gabe aldiz, segur. Funtsezko printzipioak eta eskakizunak ozenki plazaratzeko momentua da beraz.

Azkenik, eta hipotesia okerrean salaketa baizik mereziko ez duen legea ateraz gero, horren inguruko eztabaida guztia, hala eta guztiz ere, lagungarria izan da aurrera egiteko behar den lekuan, hots Euskal Herrian bertan, beste herrialdeetan bezala. Izan ere, frantses Estatuaren menpe bizi diren euskaltzaleek ontsa badakite euskararen geroa hemen jokatzela dela nagusiki. Parisen deus mugitu gabe, herri zerbitzuak sortu, dinamika zabalak sustatu eta emaitza konkretuak ere lortu dituzte euskararen biziberritzeari begira. Azken urteetako ekimenak soilik aipatuz, hor ditugu Bai Euskarari, Herriko Etxeetako Hitzarmenak edota Batera mobilizazioa, egoera sakon aldatu eta baldintza berriak sortu dituzten dinamika sozial eta politikoak. Parisen zerbait mugitzekotan bada, Frantziako Legebiltzarrean euskara aipatzen bada, euskaltzaleak mobilizaturik egon behar dira, beren mezua plazaratzen, berdintasuna aldarrikatzen, herritarren atxikimendua hedatzen eta azkartzen, hizkuntza politika ausarta eskatzen eta diputatu/senadoreak presiopean atxikitzen. ■

«
Estatuaren menpe bizi diren
euskaltzaleek ontsa badakite
euskararen geroa hemen
jokatzela dela nagusiki
»

TXANDAN

Joxerra Garzia

Ironia



Ironiaren bihurtuak, alegia. Autoa hartu eta Donostiatik Bilborantz abiatu nintzen, hiritik hirira egun berean iritsi nahi duenak aukeran duen errepide bakar eta ironiatsuan barrena.

Orduko 70 kilometroko ziztuan joatera behartzen zaituen errepideari “bide lasterra” deitzea, ez esan ez denik ironiarik finenaren adibide egokia. *Astopista* hitza asmatu zuenak bazekien zerbait... Ironiaren gailurra, ordea, barrikada-andana horretan ibiltzeagatik jartzen dizuten zigorrari “bide-saria” deitzea da. Geniala, zinez.

Pozaren pozez, irratia piztu dut. *Radio Euskadi*, berterik ez du trasteak hartzen. Ondarrutar bati elkarriz-

keta egiten ari zaizkio, eta begibistakoa da neke handiz diharduela elkarrizketatuak, euskaraz

aise pentsatua gazteleraz geldo esatera behartuta. Gero, esatarietako batek dio txalotzekoa zela pertsona batzuek berena ez den hizkuntzan hitz egiteko egiten duten ahalegina. Gaitz erdi, egin dut neure kautan, konturatu dituk behintzat.

A8 baino okerrago nengoen, ordea. Miguel Sanzek euskarazko hitz batzuk esan berri zituen aski modu baldarrean, eta hartaz ari ziren, ustez ironia finez.

Emisoraren urteurreneko publizitatea etorri zitzaidan gogora: *Radio Euskadi*, 25 urte euskararen alde.

Ironiatik sarkasmorakoa, hori bai bide lasterra ■